

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Zenbait komunikazio-estrategia erabiliko ditugu gure produktua kaleratzeko ahalik eta galera gutxien edukita. Internet eta sare sozialen erabilera erabil ditzakegu. Gure produktua gidari gazteentzat bideratuta dagoenez eta gaur egungo gazte gehienek sare sozialak asko erabiltzen dituztenez, gure marketing kanpainak eta publizitatea baliabide horren bidez erabil dezakegu.

Bezeroak erakartzeko estrategia moduan, Instagram bezelako sareen bidez gure ideia aurkeztu eta sal dezakegu, inbertsio merkea eta eraginkorra baitelako. Instagramen, "Stories"-en bitartez gure ideia aurkeztu dezakegu (bezeroak erakartzeko helburuz) eta Automozioarekin harreman zuzenak dituzten jendea, eta automobilen arloetan interesatuta daudenak, gure proiektua jarraitu dezakete. Beraz, amankomunean gustuak dituen kontuen bidez eta haien laguntzarekin batera, patrozinatzaile moduan, produktua proba moduan haiei eskeini eta produktu hori azal diezatela, produktua geroz eta gehiago zabaltzeko aukera izango ditugulako horren bidez. Ondoren, gairen inguruan interesatuta eta erosteko interesa dagoela ikusirik, produktua saltzeko prozesuarekin hasiko gara. Honen bidez, guk sortutako webgunera bezeroak heldu daitezke eta proposatutako ideia konkretuki ikusteko ahalmena edukiko dute.



Gure Webgunearen antolamendua 3 zatitan banatuta egongo da. Alde batetik, sarrera bat edukiko du, non gure produktuaren ezaugarriak eta itxura adieraziko den, baita zein helburu lortu nahi ditugun produktu horrekin. Bestetik, *Menú* interaktibo bat inkorporatuko dugu bertan, non erosteko aukera egongo den. Bertan gure produktua eskuratzeko aukera egongo da "Ask for price"-n ordainketa elektronikoak erabiliz, Paypal, Visa, Mastercard, etab., hala nola. Amaitzeko, gure inguruko informazioa eta nortzuk garen jakiteko aukera izango dute "About us"-eko atalean, hor gure kontaktua, helbidea... eskuratu dezakete.

Beste baliabide bat automozioarekin harremana daukan edozeinekin harreman zuzena bertaratu eta diseinua aurkeztu dezakegula, hala nola, tailerrekin. Tailerrekin gure produktua saldu diezaikegu, baita kontzesionarioei ere. Bestalde, <https://www.acicae.es/socios/alcorta/> ko enpresa batekin bilduko ginateteke aliantza moduan.

